

Ikuspuntu nagusia

Euskaldunon Egunkaria, 1993-09-28: 2.

Euskal Herrian bizi dugun egoera hogeitasei lerrotan laburbiltzeko bideak ikusten ditut. Batzu errazkeriak dira, beste batzu oinarrizkoak. Bestalde, zaila da bakoitzak esan nahi duena irakurleri zuzen eta osoki adieraztea. Gaur gure herrian gertatzen ari direnak berez hain gordinak direnez, eta orekak egun batetik bestera aldatzen, ez da erraza ekilibristarena egin ordez egunari bere egi iraunkorra eranstea. Ohitua dago gizakia hau bere nahierara egokitzea: hau gorria duk!; urdinaren aurkakoa, orlegia; ezker abertzalea, eskuindarraren aurka. Denak hautabide deskalifikatzaileak. Hilak berak ere hor doaz lazo beltzik gabe "infernura" edo "zerura". Eta nola! Batzuk itxu-itxuan, agureak eta haurrak inozentzi berarekin estaliaz, eta besteak, zuzentasunaren eta justiziaren izenean tortura. Estatu zaharraren agintekeria berritzen! Gure herrian bertan bake bila dabilzala dioten batzuk xaxaka, aho handiz, ez dute gaiztakeria zahar-beltz honen gainean ona den ezer eraikiko, harrokeriarik gabeko justizia barea nahi dugu. Hontaz konturatu behar genuke Herri honek izan duen historia tristearen ondoren, gure artekoa ez dela, jadanik, koloretara jokatzeko; badela keria honen aurretik garrantzia duen beste zerbait: Euskal Herriaren bakea eta Askatasuna denen arteko lankidetzan egitekoa dela; ez kolpetik, pausoka baizik: lehendabizi puntu nagusi batzutan: euskara. Autonomiaren garapena Eusko Jaurlaritza, Aldundi eta Udalak elkarrekin egitea. Ikuspuntu nagusia martxan jartzea izango litzateke hau. Badakigu hitzez esatea errazago dela ekintzaz mamitzea baino, hala ere, hau erratea hobe da isilik geratzea baino.